



EUSKO LABEL BEREIZGARRIA DUEN
“ARABAKO PATATA – PATATA DE ALAVA”
MARKAREN ARAUTEGIA.



14tik 1. orrialdea

EUSKO LABEL BEREIZGARRIA DUEN
“ARABAKO PATATA – PATATA DE ALAVA”
MARKAREN ARAUTEGIA.



**EUSKO LABEL BEREIZGARRIA DUEN
 “ARABAKO PATATA – PATATA DE ALAVA”
 MARKAREN ARAUTEGIA.**



13tik 1 orrialdea

BERRIKUSTEEN KONTROL ORRIA

BERR.	BERRIKUSITAKO ARTIKULUA	ORRIALDEA	BERRIKUSTE DATA



EUSKO LABEL BEREIZGARRIA DUEN
“ARABAKO PATATA – PATATA DE ALAVA”
MARKAREN ARAUTEGIA.



13tik 2 orrialdea

I. ATALBURUA.- OROKORTASUNAK.

1. Artikulua.- Eusko Label bereizgarriak aitortzen duen Kalitate ziurtagiria, arautegi honetan ezartzen diren baldintzak eta indarrean dagoen legeak ezarritakoak betetzen dituzten Arabako Lurralde Historikoan landutako patatei ematen zaie. Beraz, Eusko Label bereizgarria ez dute jasoko beste jatorriren bat duten inongo patatek, arautegi mota honetan jasotakoa edota indarrean dagoen legeak ezarritakoa bete ezean. Ezingo dira ere erabili ez izen, ezta espresio, marka edo bereizgarri, babestutakoekin antzekotasuna dutenak (fonetikoki edo grafikoki) eta nahasmena sor dezaketenak.

2. Artikulua.- Kalitatea Fundazioaren lana da Eusko Label bereizgarriaren defentsa eta promozioa egitea, arautegi honen aplikazioa segurtatzea edota aldaketak egitea, berau betetzen dela ziurtatzea, eta produktutaren kalitatearen sustapen eta kontrola egitea.

II. ATALBURUA.- PRODUKTUAREN DEFINIZIOA ETA EZAUGARRIAK.

3. Artikulua.- Eusko Label bereizgarria jaso dezakete Arautegi hau bete eta Arabako Lurralde Historikoan landutako kalitatezko kontsumorako patatek.

4.1. Artikulua.- Eusko Label bereizgarria, “calidad” eta “primor” multzotan sailka daitezkeen eta egiaztatutako eraitoko patatetatik datozen tuberkuluek bakarrik lortuko dute, eta gainera, indarrean dagoen arautegiaren arabera, honako ezaugarri hauek betetzen dituztenak:

- Honako ezaugarri hauek eduki behar dituzte:

- . Osoak
- . Gaitzik gabekoak
- . Trinkoak edo Gogorak
- . Barietate-motari dagokion berezko itxura
- . Osorik azalez estaliak

-Hauetatik guztiz libre:

- . Kanpoaldean ezohiko hezetasuna
- . Usain eta zapore arrotzak
- . Hotzak eragindako kalteak
- . Deformazio handiak (muinoiak, eta abar)
- . “Alfilerillo” delako landareak eragindako kalteak
- . Patataren zuztarra hutsa
- . Epitelialaren azpiko orbana
- . Ageriko materia arrotzak

- Hauetatik ia libre:

- . Tuberkulu kaltetuak, kolpatuak edo zartatuak
- . Azal gaineko ernetzeak
- . Berdatzen hasia egotea
- . Burdinezko orbanak
- . Deformazio txikiak (forma aldatzea)
- . Lurra



EUSKO LABEL BEREIZGARRIA DUEN
“ARABAKO PATATA – PATATA DE ALAVA”
MARKAREN ARAUTEGIA.



13tik 3 orrialdea

2. Ontzi bakoitzean ezin izango dira gainditu jarraian azaltzen den taulan finkatutako tolerantziak:

<u>AKATSAK</u>	<u>TOLERANTZIA, MASAREN ARABERAKO PORTZENTAIA</u>
Beste barietate batzuen nahasketa	%1
Lurra	%1
Tuberkulu kaltetuak, kolpatuak edo pitzatuak	%1
Tuberkulu itxuragabeak (formaren bariazioak)	%1
Patataren zuztarra hutsik	%1
Azalean hazteria duten edo azala zartatuta duten tuberkuluak (1)	%2
Burdinezko orbanak dituzten tuberkuluak (2)	%2
Berdeska kolorea hartutako tuberkuluak (3)	%1
Usteldura lehorra edo hezea duten tuberkuluak (4)	%1
Ernetako tuberkuluak (5)	%2
Guztirako maximoa	%7
Kalibratu gabeko tuberkuluak	%3

(1) Tuberkulu batek hazteria duela edo azala zartatua duela esango dugu, eraldaketak tuberkuluaren azalera osoaren laurden bat baino gehiago hartzen duenean.

(2) Tuberkulu batek burdinezko orbanak dituela esango dugu, tuberkulua luzeran ebaki eta azaleraren zortzirena baino gehiago hartzen duenean.

(3) Tuberkulu batek berdeska kolorea duela esango dugu, eraldaketak tuberkuluaren guztizko azaleraren seirena baino gehiago hartzen duenean.

(4) Tuberkulu batek usteldurak dituela esango dugu, tuberkuluan kutsatua izan denaren aztarnarik txikiena ikustean.

(5) Tuberkulu bat ermeta dagoela esango dugu, bost milimetro baino gehiagoko kimu bat edo gehiago dituenean.

3. Tuberkuluen materia lehorren portzentaia %17 baino gehiago izango da, Red Pontiac barietateko tuberkuluen kasuan izan ezik; hauetan, materia lehorren portzentaia ez da %16 baino baxuagoa izango. Freskotan, azukre murriztaileen portzentaia %0,8 baino baxuagoa izango da.

4. Biltegitratzeko tenperatura produktuaren sukaldaritzako baloreekin erlazionatuta dagoenez, tenperatura kontu handiz kontrolatu beharko da biltegian bertan. Beharrezkoa bada, produktuari egokitzeko epe bat utziko zaio eta horrela ez dira sukaldaritzako balioak kaltetuko.

5. Artikulua.- Fundazioak finkatuko du kanpaina bakoitzerako onetsi diren barietateen zerrenda.



EUSKO LABEL BEREIZGARRIA DUEN
“ARABAKO PATATA – PATATA DE ALAVA”
MARKAREN ARAUTEGIA.



13tik 4 orrialdea

III. KAPITULUA.- EKOIZPENA

6. Artikulua.- 1.- Ekoizpena laborantza-teknika egokienak erabiliz burutuko da, lan eta prozesu guztietan ahalik eta gehien saiatuz.

Ezar daitezkeen tratamenduak, produktua lortzeko gutxieneakoak eta beharrezkoak direnak bakarrik izango dira.

Beharrezkoa izan ezean, eta betiere aholkularitza teknikoari jarraiki, Fundazioak onetsitako produktu fitosanitarioak bakarrik erabiliko dira. Aipatu kanpainarako baimendurik ez dagoen tratamenduren bat aplikatu nahi izanez gero, probintzia-elkarteetako teknikarien baimena beharko da, eta egokitutako arazoaren neurria aplikatuko da, ingurugiroa kaltetzen ez duten eta azkar deuseztu daitezkeen produktuak erabiliz.

Tratamendurik behar izanez gero, ahalik eta gutxien erabiliko dira eta produktua lortzeko, konpondu beharreko arazoaren arabera, ezinbestekoak izango dira; horrez gain, erabiliko diren produktuak ingurugiroarekiko errespetagarriak izango dira, eta berehala desagertzen direnak.

Fundazioak, kanpainaren hasieran, baimendutako tratamenduen zerrenda zehaztuko du.

Lur berean hiru urte igaro arte ezin izango da berriro ere landu, ezta sustraiko laborantzarik ere (erremolatxa); gainera, laborantzan ezin izango dira erabili indarrean dagoen arautegia betetzen ez duen produkturik edo sistemarik, ezta patataren kalitatearen irizpideak kaltetzen dituzten produktu edo sistemarik ere.

Lurreztatze-lana nahi eta nahi ezkoa da.

2.- Uzta produktua egokien dagoen unean egingo da. Kontu handiz egingo da, fruitua ez kaltetzeko.

Ahalik eta gehien murriztu beharko da uzta- eta bilketa-garaiko produktuaren manipulazioa eta kolpaketa, produktua bere osotasunean gorde dadin.

Ez da erabiliko, indarrean dagoen arautegia betetzen ez duten edo produktuaren kalitatea kaltetzen duten laborantza- edo bilketa-sistemarik.

IV. KAPITULUA.- BILTEGIRAKETA, ONTZIRAKETA ETA ETIKETATZEA

7. Artikulua.- Babestu beharreko tuberkuluak, ekoizletik - bitartekari handizkariengana edota ekoizletik – ontziratzaileengana garraiatzean, egokitutako ibilgailuetan egingo da, gainera, kalteak arinduko dituen karga-deskargarako sistema izan beharko dute.

8. Artikulua.- Patatak behar bezala egokitutako lokal batean biltegiturako dira, alegia, lokal freskoa, aireztatua, hezetasunik gabea eta erdi iluntasunean.

Patatak, zuzenean biltegiko lurrean pila daitezke, gehienez 3 metroko altueraraino ohiko aireztapena besterik ez duten biltegien kasuan; beste aireztapen-mota baten kasuan, 3,5 metroko altuera hartu ahal izango da.



EUSKO LABEL BEREIZGARRIA DUEN
“ARABAKO PATATA – PATATA DE ALAVA”
MARKAREN ARAUTEGIA.



13tik 5 orrialdea

Lokalean, Labela lortzeko egokiak diren patatak eta Labela lortuko ez dutenak biltegira daitezke, beti ere banandurik, biltegiko zona desberdinetan kokatzen badira, aldez aurretik mugatuta eta bereizita, hartara produktuaren kontrola une oro ziurtatzeko eta ahalbidetzeko.

9. Artikulua.- Eusko Label bereizgarria duen Patata ontziratu baino lehen garbitu egingo da, edo zepilo-kate batetik pasa, gutxienez 14 arrablekoa.

10. Artikulua.- Patata, Euskal Autonomia Erkidegoan kokatuta dauden instalazioetan ontziratuko da. Salbuespen moduan, interesgarritzat jotzen bada, patata Euskal Autonomia Erkidegoan ez dauden instalazioetan ontziratuta ahal izango da.

11. Artikulua.- Ontzi bakoitzaren edukia homogenea izan behar da, barietateari, neurriari eta koloreari dagokienez. Ontzian ez da lur-arrastorik, hosto zimelduren arrastorik, ezta arrasto arrotzik egongo ere. Aldi berean, ontziratutako produktua ez ukitzeko moduan egongo da itxita.

Patatak kalibratuta aurkeztu behar dira, neurria 40-80 mm ingurukoa izango da. Kalibre tartea edo ontzi berean, patata batetik bestera egon daiteken aldea, gehienez 20 mm-takoa izango da.

Barruan dagoen produktua ondo ikustea errazten duten ontziak erabili behar dira.

12. Artikulua.- Fundazioaren eskumeneko organoak, etiketak, diseinuak eta ontziak ontsi beharko ditu, merkaturatu baino lehen, eta, hala badagokio, erabili beharreko ontziak, horien koloreak, banaketa eta ontzi bakanen salmenta egiteko erabiltzen diren kutxak eta erakustokiak osotasunean edo zati batean nolakoak izan behar duten erabaki ahal izango du.

Modu berean, kanpaina batetik bestera, merkaturatze interesen arabera, produktuaren aurkezpen-mota ere alda daiteke.

Fundazioak egingo du Eusko Labelaren sinboloa agertzen den etiketa eta ontzien kontrola, sinboloa behar bezala erabiltzen dela, kopia ez dutela edota, sinboloa idazterakoan nahiz adierazterakoan Eusko Label bereizgarriaren izen onaren nahiz helburuen aurka egiten ez dela ziurtatzeko.

V. ATALBURUA.- KALITATEAREN KONTROLA.

13. Artikulua.- Kalitatea Fundazioak ezarriko ditu produktuak jarraitu behar duen prozesuan zehar, alegia, ekoizpenean, biltegiatzean, garraioan, ontziratzean eta merkaturatzean, beharrezkoak diren kontrol-sistemak, hartara ziurtatu egingo da, Kalitatearen Labelaren sinboloekin identifikatutako produktuak honako Arautegi honetan ezarritako baldintza guztiak bete egiten dituela.

2.- Lehenik eta behin, erregistratutako ekoizleen, handizkari-bitartekariaren eta ontziratzaileen ardura izango da produktuaren trazagarritasunaren kontrola eta kalitatearen kontrola egitea. Ekoizleek eta ontziratzaileek, beren lan-prozesuetan, Fundazioak onetsitako sistema operatiboak eta kontrol-sistemak, egokiak eta nahikoak, ezarriko dituzte, bide batez Arautegi honetan definitutako arautegia bete ahal izateko.

14. Artikulua.- Eusko Labelaren bereizgarriaren erregistroetan izena emandako guztiak, horretarako baimena izango duten ikuskatzaileen kontrolak onartu, kontrol-lan horretan lagundu, eta ekoizpenaz, manipulazioaz edota merkaturatzeaz eskatzen dieten datu eta agiriak eman beharko dizkiete.



EUSKO LABEL BEREIZGARRIA DUEN
“ARABAKO PATATA – PATATA DE ALAVA”
MARKAREN ARAUTEGIA.



13tik 6 orrialdea

15. Artikulua.- Produktuaren prozesuaren katea (ekoizpena, ontziratzea, merkaturatzea eta gainerako lanak) kontrolatzeko eta gainbegiratzeko, baita ondoren aztertze eta prozesuak ziurtatzeko ere, enpresen edo teknikari espezializatuen zerbitzuak kontrata daitezke, eta egokien deritzen kontrol-sistema ezarri.

VI. ATALBURUA.- ERREGISTROAK

16. Artikulua.- Kalitatea Fundazioak, edo izendatzen diren organoek, jarraian adierazten diren erregistroak edukiko dituzte:

- a) Ekoizle elkarte eta ekoizleen erregistroak.
- b) Ontziratzaileen Erregistroak, Eusko Label bereizgarriaren aukeraketa eta ontziratze lanak egiteko onartuta direnak.

VII. ATALBURU. NEURRI ZUZENTZAILEAK

16. Artikulua.- Erregistratutako erabiltzaileek Arautegia betetzen ez badute, Fundazioak zigorra jartzeko ahalmena du, jakinarazpenen bitartez, edo marka erabiltzeko baimena, aldi baterako gabetuz edo behin betirako gabetuz.



EUSKO LABEL BEREIZGARRIA DUEN
“ARABAKO PATATA – PATATA DE ALAVA”
MARKAREN ARAUTEGIA.



13tik 7 orrialdea

Autokontrolerako Arauak

1. EkoizleElkarteei dagokienez:

- Ekoizle Elkarte bakoitzak, partaidetza duten ekoizle, lursail, barietate, laborantza-bide, ekoizpenaren aurreikuspena eta interesgarriak izan daitezkeen beste edozein arloko erregistroak eguneratuta izan behar du.
- Ekoizleek, kanpaina hasieran gutxienez, ondorengo datuak azaldu beharko dituzte:
 - Ekoizlearen izena eta deiturak, helbidea, udalerrria, telefonoa, eta abar.
 - Ekoizpen sistemaren eta landatutako barietatearen araberrako landatze azalerak eta aurreikusitako ekoizpen-bolumena.
 - Ontziratze-lekua.

Patata saltzerakoan albaran bat luzatuko du, kopia bat erosleari eta beste bat Kalitatea Fundazioari emanaz.

2.- Ontziratze-zentroei dagokienez:

- Ontziratze-zentroek erregistro-liburu bat edukiko dute, non sorta bakoitzeko identifikazioa azalduko den: ekoizlea, data eta emandako kantitatea, data eta Eusko Label bereizgarriarekin ontziratutako kantitatea, erabilitako etiketa kopurua, ontzi mota, baita produktuaren trazagarritasuna ziurtatzeko beharrezkoa izan daitekeen bestelako informazioa ere.



EUSKO LABEL BEREIZGARRIA DUEN
“ARABAKO PATATA – PATATA DE ALAVA”
MARKAREN ARAUTEGIA.



13tik 8 orrialdea

BESTE ZENBAIT AGIRI

Urteroko edo aldian behinkako komunikazioak:

Eusko Label bereizgarriaren Arautegian eta kontratuan xedatutakoari jarraiki, urtero hurrengo akordioak jakinaraziko dira:

1. Onetsitako barietateak.
2. Baimendutako tratamenduak.
3. Baimendutako ontziak eta etiketak (formatuak eta diseinua).
4. Ordaindu behar diren kuotak.
5. Arau-hausteen tipifikazioa



EUSKO LABEL BEREIZGARRIA DUEN
“ARABAKO PATATA – PATATA DE ALAVA”
MARKAREN ARAUTEGIA.



13tik 9 orrialdea

1. AGRIA.

BARIETATEAK

1999KO KANPAINAREN BARRUAN ARABAKO PATATAREN EUSKAL LABELERAKO BAIMENDUTAKO BARIETATEAK.

- MONALISA
- AGRIA
- KENNEBEC
- RED PONTIAC
- SPUNTA
- JAERLA
- NAGORE
- CAESAR (AZTERTZEN ARI DIRA)

2. AGIRIA

ONTZIAK ETA ETIKETAK

Ontziak eta etiketak (formatuak eta diseinua)

Ontzi-motak:

- Kontsumitzaileari saltzeko ontzia. Modalitate honi dagokionez, produktua 2,5 kg, 3 kg eta 5 kg-ko formatuetan aurkeztuko da.

ETIKETAK

Honako datu hauek azalduko dira etiketan:

- Ontzian, indarrean dagoen arautegiak adierazten dituen datuez gain, ondo ikusten den leku batean eta ondo bereizita, eta gutxienez atzealdean edo alde nagusian, Kalitatearen Euskal Labela duen Arabako Patataren logotipoa azalduko da (1. IRUDIA), gutxienez 60 mm x 80 mm-ko neurria duelarik. Ontzia sare bat bada, eta identifikazioa sarera lotuta dagoen zinta batean egiten bada, sarearen bi muturretara grapa baten bitartez lotzen delarik, zintan zehar irudiak bata bestearen atzetik azalduko dira (Kalitatearen Anagrama, Arabako Patataren Anagrama eta Arabako Patataren logotipoa), eta hiru elementuek betetzen duten luzera 50 mm. baino gutxiagokoa izango da.



1. irudia



2. irudia




EUSKO LABEL BEREIZGARRIA DUEN
“ARABAKO PATATA – PATATA DE ALAVA”
MARKAREN ARAUTEGIA.



13tik 11 orrialdea

- Ontzi guztien barrualdean Arabako Patataren Kalitatearen Euskal Labelaren etiketa bereizgarria eta kontrolerako etiketa sartuko da.





EUSKO LABEL BEREIZGARRIA DUEN
“ARABAKO PATATA – PATATA DE ALAVA”
MARKAREN ARAUTEGIA.



13tik 12 orrialdea

3. AGIRIA

ORDAINDU BEHARREKO KUOTAK EDO BEREIZGARRIEN KOSTUAK.

1999ko kanpainari dagokionez, ordaindu beharreko kuotak honako hauek dira:

- | | |
|-----------------------------|---------|
| – 2,5 kg-ko ontzien etiketa | 2.5 PTA |
| – 3 kg-ko ontzien etiketa | 3 PTA |
| – 5 kg-ko ontzien etiketa | 5 PTA |



EUSKO LABEL BEREIZGARRIA DUEN
“ARABAKO PATATA – PATATA DE ALAVA”
MARKAREN ARAUTEGIA.



13tik 13 orrialdea

4. AGIRIA

ARAU-HAUSTEEN TIPIFIKAZIOA

ARAU-HAUSTE ARINTZAT HONAKO HAUEK JOTZEN DIRA:

1. Ontziratutako Patatak Arautegian ezarritako kalitatearen parametroak betetzen ez dituzenean, tamaina, kolorea, forma, homogeneotasuna, osotasuna, eta abarri dagokienez, eta akats txikiei dagokienez, pilatutako perdoiak %7 gainditzen duenean, baina %15 gainditu gabe.
2. Ontziratutako produktuan elementu arrotzak ikustea, hala nola, lurra, intsektuak eta bestalako arrastoak, nahiz eta gutxieneko agerpena izan.
3. Beste zenbait arau-hauste, arau-hauste larritzat jo daitezkeenak, eragiten dituzten ondorioen arabera.

ARAU-HAUSTE LARRITZAT HONAKO HAUEK JOTZEN DIRA:

1. Parteetan, deklarazioetan, liburuetan eta gainontzeko kontrol-agirietan gauzak behar bezala ez adieraztea, gezurretan ibiltzea edo gauzak ezkutatzea, baita kontrolerako eta seinaleztapenerako euskarriak, agiriak edo elementuak gaizki erabiltzea ere.
2. Euskal Labela duten ontzien barrualdean Arabako Patataren Kalitatearen Euskal Labela ziurtatzen eta kontrolatzen duten etiketarik ez egotea.
3. Kalitatearen Euskal Labelaren etiketa lortu duen Patatak, ezarritako kalitatearen parametroei dagokienez, pilatutako akatsen %15 gainditzea.
4. Tratamenduen hondakinak, Legeriak onetsitako kantitateak gainditzea.
5. Patata, kanpainarako baimendutako barietateen desberdina izatea.
6. Indarrean dagoen Legeria urratzen duten ekoizpen-sistemak edo produktuak erabiltzea.
7. Patataren Kalitatearen Euskal Labelaren erregistroetan erregistratuta ez dauden EAEko ekoizleen edo ekoizle-elkarteen Patatak erabiltzea.
8. Kalitatea Fundazioak onetsi ez dituen ontziak, filmak edo etiketak erabiltzea.
9. Adierazitako kuotak ez ordaintzea.
10. Kalitatearen Euskal Labelaren bereizgarriak, ontziak eta publizitate- eta promozio-elementuak behar bezala ez erabiltzea, edo elementu horiek Fundazioaren Teknikariak luzatu beharreko idatzia lortu gabe erabiltzea; arau-hauste larritzat edo oso larritzat jo daiteke.
11. Patataren Kalitatearen Euskal Labelaren Arautegian ezarritako beste zenbait alderdi urratzea, zeintzuk aipatu arau-hausteen artean agertzen ez badira ere, larritzat jo daitezkeen, izan ditzaketen ondorioengatik edo eragiten duten ekoizpen-bolumenagatik.

ARAU-HAUSTE OSO LARRITZAT HONAKO HAUEK JOTZEN DIRA:

1. Baimendutako ikuskatzaileei kontrol- eta ikuskapen-zereginak burutzen ez uztea; arau-hauste oso larria izan daiteke.
2. Labelik gabeko produktuetan Labelaren sinboloak erabiltzea.